

HERRI-IKASTETXE IZEN ZENBAITEZ XEHETASUNAK

Bilbon 1994.10.19

*Mikel Gorrotxategi,
Onomastika batzordekidea*

Berdelari: 1860.eko Nomenclator de la Provincia de Guipuzcoan agertzen den baseria. 9. eraskina.

El Llano: Barakaldoko dermioa, baina artikulorik gabe "Llano". Lehenengoz agertzen da Bienandanzas y Fortunasen: "De los linajes de Varacaldo e de donde sucedieron (...), que ovo fijos a Galindo de Retuerto, Ferrando de Llano e otros.." Mende honen hasieran bota zuten eskola honen inguruan zegoen Llano jauregia. 10. eraskina.

Retuerto: Eskola Santander eta El Regatorako bideen bidegurutzean dago, gaur egun oroar Retuerto deitzen den auzoa, aintzinako eleizaren ondoan, leku horren izena ez zen Retuerto, auzunea areago baitago, Ametzaga baizik, gaur egun izen horrek kale batean eta handik hurbil dagoen iturrian dirau. 11. eraskina.

Mina del Morro: Atxuri, Bolueta eta Santutxu tartean dagoen mendizka, 1669ean **Larreagaburu** izendatzen zuten El Ponton errotaren mugariak ipintzean, izen berri hau hantxe zegoen meategitik dator. 12. eraskina.

San Gabriel: eskolak aurrean dagoen San Gabriel basiliza eta auzotik har- tzen du izena, basiliza hori, auzoa bezala, oso berria da, zihurazki 50-60 hama- rakadekoa, lehenago ez baitzegoen ezer. Salcedillo auzotik hurbil dago.

Siete Campas: Zorrotza ganean dagoen auzune edo "urbanización" berri ba- ten izena, J. de Ybarrak, Zorrotzako dorretxeaz mintzatzean **Zorrosgotiko** bidea aipatzen du, gaur egun handik hurbil dagoen bidea: "Camino de Zorrosgoiti", beste izen egokia Zorrotzabaso, Kastrexana gaineko izen zaharra. Beraz **Zorroz- goiti** litzateke izen egokia. 13. eraskina .

Lope de Vega: Otxarkoagan dagoen hiru ikastetxe publikoetako bat, Francis- co de Goya eta Otxarkoagarekin batera, Basaurin beste izenkidea dagoela eta jen- deak toponimoak eta ez pertsona izenak erebiltzeko ohitura ikusita, hala nola Instituto central eta ez Miguel de Unamuno esaten da, logikoagoa ikusiko nuke alboko **Azkarai** auzoarena ipintzea. 14. eraskina.

Repelega: gaur egun Portugaleten dagoen auzoa lehen Santurtzi zena, baina Santurtzi banatzean irla bihurtu eta hori dela eta geroago aldatu zen udalaz, bai

Ortuella zein Portugaleteko artxibuetan bi eratan ematen da Repelega eta **Repe-laga**, kontuan harturik inguru hartako toponimia gehiena euskalduna dela: Arana, Iturburu, Ibarra, Zulueta, Biternari, Abachola... nik **Errepelaga** jartzea proposatu-ko nuke. 15. eraskina.

Artatxe: Guidartek 1570an Begoñako eleizaurrean egindako ibilbide batean Ocharcoaga auzoan **Arteche** baserria aipatzen du. Honetaz gain, Jose M.^a Agirrek (Atxurin jaioa eta Santutxun bizi dena) Artetxe izeneko txakolindegia gaur egungo eskolaren lekuan zegoela esan zidan. Beraz **Artatxe** eta ez Artatxe ipini behar-ko dugu. 16. eraskina.

Santa Maria del Yermo: Laudioko herri-eskola honen izena inguru haietako Andra Mariarik ospetsuena dugu, Laudioko dermioaren goiko partean kokaturik dagoena. Inguru hori mende honen hasieran euskalduna zenez pentsatzekoa zen euskal izena edukiko zuela, eta beraz, bilatzeari ekin nion. Zoritzarrez Azkue Bibliotekan aurkitutako aipamen posible bakarra **Ermuerreka** zen, hori bai, non zegoen kokaturik esan gabe.

Hori dela eta bertara jo nuen, auzo hartan ez nuen horren berri eman ziezadakeenik topatu, baina bai, handik berrehun metrotara dagoen Isusi auzoan, hain zuzen ere Isusi baserrian. Bertako jabeak, (Antonio Egia Bilbao), egiaztatu zidan Ermuerreka hantxe zegoela (ikus eraskina). Era berean inguruetako toponimo, eta haien itzulpen eta aldaketen berri eman zidan. Geroago zuzen galdetu nion Ermu izeneko beste lekurik ezagutzen zuten eta emazteak erantzun zidan, hango zaharrek (euskaldunak zirenak) esaten zutela: “voy al **Yermu**”.

Laudioko Udalak auzo guztietan ipini ditu etxe eta auzoen izenak, Santa Maria del Yermoren kasuan Eremuko Andra-Mari jarri dutelarik.

Beraz, aurreko guztia ikusita, nik **Ermuko Andra Maria** hobetsiko nuke.

ERASKINA



